

## Balio proposamena

Sendagaien kutxa automatikoaren balio proposamena osasun sistema publikoa (Osakidetza) hobetzea da, herritarrei sendagaiak eskuratzeko erraztasun handiak emanez: Beharrezko sendagaiak eskuratzeko sistema nahiz eta farmazia itxita egon, errezetatutako dosi egokia denboran eta edozein farmaziatan eskuratzeko sistema eta errezeta-sistema informatizatu eta automatikoa sortzea.

Momentu honetan, jende asko dago sendagai oso espezifikoak behar dituztenak gaixotasun edota osasun arazo bateri aurre egiteko. Botika horiek lortzeko errezeta bidezko sistema erabiltzen da, Osakidetzak eta EUSFAREk (Euskadiko Farmazien Erakundea) elkarlanean jarduten dute 1994tik bien arteko hitzarmena sinatu ondoren.



Nahiz eta sistema honen funtzionamendua egokia izan, arazo batzuk dituela nabarmentzen da. Sendagaiak hartzeko orduan kontutan hartu behar dugu ze farmazia dagoen une bakoitzean irekita, askotan bakar batzuk daude guardian eta. Beraz, sendagaiak ez daude beti eskuragarri eta zailtasunak izan dezake sendagaia behar duen pertsonak, esaterako gauez behar izatea sendagaia eta autorik ez izatea zabalik dagoen farmaziara joateko.

Arazo hau kontutan izanik, sendagaiak eskuragarri bilakatzeko zerbitzu bat eskainiko dugu. Honetan datza gure proiektua, sendagaien kutxa automatikoa, edonoiz eta edonon errezatutako sendagaiak lortzeko ahalmena izatea.

Honez gain, gure baliozko proposamenak balio kualitatiboa du, gizartearen bizitza maila hobetzea da, sendagaiak lortzeko erraztasuna emanez. Hau lortzeko gure zerbitzua erabilgarria izango da edozein adineko pertsonentzat, bere funtzionamendu sinple, intuitibo eta giatuari esker. Kutxa hau segurua eta konfidentziala izango da, herritarren pribatutasuna zainduz eta arazoak ekiditzeko, edozeinen esku egongo baitira. Kutxa barneko baldintzak farmazia barnekoen berdinak izango dira, sailkaturik, temperatura eta hezetasun jakin batean, sendagaien egokienak direnak.

Gure ideia berritzailea da, ez baitago merkatuan horrelakorik, hori dela eta ez du lehiakiderik izango. Gaur egun eskuragarri ditugun aurrerakuntza elektronikoko eta robotikoekin baliatuz proiektu hau aurrera eramatea posiblea da. Ideia hau aitzindaria da etorkizun batean garatuagoa izango den sistema automatizatu batentzat, orain arte ez baita antzekorik agertu.